



URTEKO TXOSTENA 2020

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA



EDUKI-TAULA

LABURPENA IRUDIETAN _____	4
KOPURUAK _____	5
Bisitak / Erabiltzaileak _____	5
Liburutegiko txartela duten erabiltzaileak _____	5
Erabilera ordutegi berezian _____	5
Katalogazioa eta funtsa _____	5
Herriko Bilduma _____	6
Liburuklik _____	6
Maileguak _____	6
Desideratak _____	6
Internet zerbitzuaren erabilera _____	6
Web-orria, OPAC-en egindako kontsultak eta sare sozialak _____	6
Web-orria _____	6
OPAC (sareko katalogoa) _____	7
Sare sozialak _____	7
Liburutegiko jardueretan izandako partaidetza _____	7
Erabiltzaileak _____	7
Liburutegira datozen pertsonak _____	7
Bazkideak _____	8
Funts bibliografikoa _____	9
Mailegua _____	10
Helduen atalean egindako maileguak _____	11
Umeen Liburutegian egindako maileguak _____	13
Mailegua hizkuntzaren arabera _____	15
Mailegua sexuaren arabera _____	16
Mailegua adinaren arabera _____	17
Instituzioei egindako mailegua _____	17
Automailegua _____	18
Liburutegiarteko mailegua _____	18
eLiburutegia zerbitzua _____	19
KONTUAK _____	22
Diru-sarrerak _____	22
Gastuak _____	22
IRAKURTZEA BULTZATZEA _____	24

Bularretik Mintzora programa _____	24
Liburua, ate bat kulturarako _____	25
Zapatuko ipuina _____	26
Azalerako ipuinak (umeen irakurketa-kluba) _____	28
Liburuen poltsa (umeen irakurketa-kluba) _____	29
Paperezko hegoak (umeen irakurketa-kluba) _____	30
Haur eta Gazteentzako Liburuaren Nazioarteko Eguna _____	31
Zu ere ipuin kontalari _____	31
“Posta-irakurketak” lehiaketa _____	32
Helduentzako irakurketa-kluba gaztelaniaz _____	34
Idazlearekin harixa emoten (irakurketa-kluba euskaraz) _____	36
Irakurketa errazeko klubak _____	37
Liburuaren Nazioarteko Eguna _____	38
Hitzaldiak eta liburu-aurkezpenak _____	39
Ikastetxeetarako erakusketa didaktikoak _____	40
Itsaspeko bihotzak literatur aretoa _____	40
Tantaka, tabuak ipuinetatik lantzen _____	42
Meetings at the Library - Réunions dans la Bibliothèque _____	45
Liburutegien eguna _____	47
Liburutegiko tailerrak: erabiltzaileak trebatzen (ALFIN) _____	49
Erakusketak interes guneetan _____	51
TREBAKUNTZA _____	52
NABARMENTZEKOAK _____	54
Armeria Eskolak emandako funtsa _____	54
Eibarko bilduma _____	55
Eleibar _____	56
“Liburutegiak pandemiaren aurrean” Jardunaldian parte hartzea _____	57

LABURPENA IRUDIETAN

**2020ko
TXOSTENA**



KOPURUAK

Bisitak / Erabiltzaileak

47.237 bisita, 217 pertsona egunean (- 58,58 %). Liburutegia itxita egon da **85** egunez eta aforoa erdira murriztu da.

Liburutegiko txartela duten erabiltzaileak

14.111 izan ziren (biztanleen % 50,60 ¹); eta 2019an baino 310 gehiago

Pertsona helduak	15urtetik beherakoak	Instituzioak	Liburutegiak
11.575	2.437	87	12

2020an alta eman duten bazkideak: **310**.

Pertsona helduak	15 urtetik beherakoak	Instituzioak	Liburutegiak
147	161	2	0

Erabilera ordutegi berezian

551 pertsonak erabili zuten Liburutegia eguerdian, azterketengatik egun osoa zabalik izaten dugun garaian. laz urtarrilean zabaldu zen bakarrik eguerdian.

Katalogazioa eta funtsa

Funts osoa 2020ko abenduaren 31n: **84.465** (% 0,23 gehiago)

Altak 2020an: **2.613**

Dokumentuak biztanleko Eibarren: **3,03**

Bajak

Dokumentu galduak 2020an: **19**

Dokumentu espurgatuak: **2.173**. Liburutegia itxita egon zen denbora baliatu genuen funtsa berritzeari bultzada bat emateko, eta liburu zaharkituak bota genituen.

¹ Biztanleria: 27.885 (31/12/2020)

Herriko Bilduma

Saiatzen gara eskuratzen Eibarren, Eibarri buruz edo Eibarko egileek argitaratzen duten guztia. Une honetan **3.531** dokumentu ditugu gure katalogoan; haietako batzuk bikoiztuta daude.

Liburuklik

85 monografia ditugu digitalizaturik Liburuklik-en², edozein pertsonak kontsultatu edo irakur ditzan Internet erabiliz.

Maileguak

2020an **23.515** mailegu egin ziren, **108** egunean; 2019an, aldiz, 130 egunean. Kontuan izanik aurten Liburutegira joan den persona-kopurua asko jaitsi dela iazko urtearekin alderatuta, ez dugu kopuru txarra denik uste; izan ere, **85 egunez itxita** egon zen konfinamendu-garaian. Honela sailkatzen dira:

Helduen Liburutegia: 14.344

Umeen Liburutegia: 9.171

Euskaraz: 5.337

Liburu digitalak: **2.505³** (2019an baino % **98,65** gehiago)

Desideratak

Desideratak erabiltzaileek liburutegian ez dugun zerbait nahi dutenean egiten dituzten erosketa-eskaerak dira.

Eskaera horiek baloratu egiten dira, eta, komenigarritzat jotzen badira, eskuratu egiten dira.

2020an **215 desiderata** egin dira, eta horietatik 206 onartu eta baztertu dira 9.

Internet zerbitzuaren erabilera

4.621 saio egin ziren erabilera publikorako ditugun ordenagailuetan, **724** Haur Liburutegian eta **3.897** Helduen Liburutegian.

Web-orria, OPAC-en egindako kontsultak eta sare sozialak

Web-orria

<http://www.eibar.eus/es/cultura/biblioteca>, **gaztelaniazko** web-orriak **17.252** bisita izan zituen.

Atalik bisitatuenak izan ziren katalogoa, informazio orokorra eta ordutegia, online-zerbitzuak, Interneteko baliabideak eta Haur Liburutegiaren bloga.

² Liburuklik: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/11616>

³ Datu hau ez dago kontabilizatuta mailegu orokorrean.

<http://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia> euskarazko web-orri berak **7.533** bisita izan zituen. Kasu horretan gehien kontsultatu ziren atalak hauexek izan ziren: katalogoa, informazio orokorra eta ordutegia, zerbitzuak eta online-zerbitzuak, argitalpenak, jardueren gaineko informazioa eta Interneteko baliabideak.

24.785 bisitetatik, % 70ek gaztelaniaz egin dute eta % 30ek euskaraz.

OPAC (sareko katalogoa)

Bilaketak OPACen (katalogoan): **10.022**

Sare sozialak

Batzen baditugu Facebook-eko (583), Twitter-eko (847) eta Instagram-eko (311) jarraitzaileak, guztira **1.741** pertsona dira (+ **22,00** %).

Liburutegia itxita egon zen garaian handitu egin zen sare sozialen bidezko komunikazioa, eta datu hori positiboki islatu da gure jarraitzaile-kopuruan.

Liburutegiko jardueretan izandako partaidetza


Hainbat talde daude parte hartzen dutenak antolatzen diren jardueretan, eta ikasturte-hasieran izena ematen dutenak: irakurketa-klubak, ikastetxeen bisitak... Gainera, sarrera librea duten hainbat ekitaldi egiten dira: ipuin kontalarien saioak, liburu-aurkezpenak eta tailerren bat edo beste.

Urtean zehar jarduera horietan parte hartu duten pertsonak 2.139 izan dira. (- 44,00 %), 159 saiotan. Saiatu gara aktibitate batzuk mantentzen online bidez, baina gehienak **bertan behera** geratu behar izan ziren **Liburutegia ixtean**, eta uda pasatu arte ez gara berriz hasi; gainera, **aforoak murriztu** beharra izan dugu.

Erabiltzaileak

Liburutegira datozen pertsonak


luz **47.237** pertsona etorri ziren Liburutegira. Haietatik, **18.818** goizez etorri ziren eta **27.845** arratsaldez.



Bisitari-kopurua jaitsi egin da iazkoarekin alderatuz gero, eta arrazoiak begi-bistakoak dira.

Bazkideak

2020an **310 bazkide berri** izan genituen; guztira **14.111** bazkide ditugu



2017ko igoera Bularretik Mintzora programari zor zaio.


Kontuan hartu behar da Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sareko kide izanik –horretarako txartel bakarra dago–, gure erabiltzaileei zerbitzua emateaz gain beste herri batzuetako pertsoneri zerbitzua eskaintzen diegula.

Bazkideak adinaren arabera

2020an Liburutegiko txartela eskatu zuten pertsonen % 60 14 urtetik beherakoak izan ziren. Neska-mutikoen proportzio altua **Bularretik Mintzora** programaren eraginari zor zaio eta baita Umeen Liburutegiari eman zaion bultzadari ere, erabiltzaileei trebakuntza eman baitzaie ikastetxeko ikasleekin etor daitezten Liburutegiko zerbitzuak eta funtzionamendua ezagutzera.

Baina datuak modu orokorragoan hartuta, bazkideen % 34 41 eta 65 urte artekoa da eta % 24 25-40 urte artekoa.

Ikasleek asko erabiltzen dute Liburutegia irakurketa-gela bezala, baina gehienak ez dira bertako bazkide. Nahiz eta Eibarren pertsona jubilatuta asko egon, oro har ez dira Liburutegiko bazkide. Eta kontuan hartu behar da hemeroteca-zerbitzua erabiltzeko ez dela beharrezkoa liburutegiko txartela edukitzea.



Irakurle aktiboak

Irakurle aktiboak dira mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenak.

Txartela dutenak eta mailegu-zerbitzua erabili dutenak 2020. urtean gutxienez behin.

Guztira 2.603 izan dira, eta adinaren eta irakurle motaren arabera sailkatuz gero, honelaxe geratzen da taula:

	Helduak	Umeak	Instituzioak	Beste liburutegi batzuk
2020	1.563	1.003	32	5

Funts bibliografikoa

2020an **2.644** ale gehitu ziren Liburutegiko bildumara. Horietatik gehienak berriak izan ziren, baina tartean baziren ondare bibliografikoari dagozkionak, atzera-begirako katalogazioari dagozkionak, edo dohaintza bidez emandakoak.


Dagoeneko 84.465 dokumentu ditugu eta gure ekipamenduak ezingo du askoz gehiago hartu. Beraz, orain arte espurgatu ditugunak baino liburu gehiago erretiratu beharko ditugu. Esaterako, 2020n **2.173 ale espurgatu dira**, Liburutegia itxita zegoela aprobetxatuta.

Ez ditugu hemen sartu **eLiburutegia** funtsa osatzen dutenak, alegia, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak eskuratutakoak: **guztira 20.954 liburu digital, 80 audioliburu, 591 liburu Daisy formatuan⁴ y 14.000 pelikula.**

Mailegua

2020an **23.515** mailegu egin ziren, egunean 108. 2019an baino 15.814 gutxiago izan baziren ere, egunean batez beste 22 mailegu gutxiago egin ziren. Ez alferrik aurreikusita zeudenak baino 85 egun gutxiago ireki zen Liburutegia pandemia dela-eta.

Maileguaren datu horri gehitu behar zaio liburutegiarteko mailegu bidez kudeatzeko aukera ere badagoela; eta modu horretan **2.513** dokumentu kudeatu dira.



2020an aurreikusitakoa baino 85 gutxiago ireki zen Liburutegia; batez beste egunean 108 mailegu egin ziren, 2019an baino 22 gutxiago.

⁴ Informazio Digital Irisgarriaren Sistema. Kontsulta 2021-02-18:
https://es.wikipedia.org/wiki/Sistema_de_Informaci%C3%B3n_Digital_Accesible

Helduen atalean egindako maileguak


2020an gehien mailegatu diren nobelak hauek izan dira:



Aitaren etxea
(Karmele Jaio)
Elkar, 2019




Atzerrian
(Nerea Balda)
Pamiela, 2019



Fakirren ahotsa
(Harkaitz Cano)
Susa, 2018



Reina Roja
(Juan Gómez-Jurado)
Ediciones B, 2018



Loba Negra
(Juan Gómez-Jurado)
Ediciones B, 2019



La mejor madre del mundo
(Nuria Labari)
Random House, 2019


DVD mailegatuenak:



Juego de tronos. Octava temporada




Mad men. Temporada uno




A dos metros bajo tierra. Temporada uno

Maileguaren bilakaera azken 10 urteotan hauxe izan da:



Helduen atalean mailegua jaitsi egin da euskarri guztietan. Grafiko hau ikusita aurreikusten dugu formatu digitaleko irakurketaren igoera, eta maileguaren jaitziera 2020an, gainerako zerbitzuekin gertatu den bezala.




Euskarriari dagokionez, liburua da protagonista, argi eta garbi; hurrengo DVDak daude, eta jarraian musika eta aldizkariak. CD-ROMen mailegua eta eReaders-ena oso txikia da, hortaz, era horretako materiala espurgatu beharra aztertzen ari gara.

Azken urteotan mailegu tradizionala jaisten ari da. Interneteko kontsultak eta irakurketa digitala asko nabaritu dira Liburutegietan, eta ikusten ari gara mailegu-kopurua behera egiten ari dela. Horrekin batera, pelikula eta telesailen harpidetza-plataformak goraldi bat izaten ari dira (Netflix, HBO...), eta baita musika entzuteko diren harpidetza-plataformak ere, hala nola Spotify.

Umeen Liburutegian egindako maileguak

Azken 10 urteotan Umeen Liburutegian egindako maileguaren bilakaera grafiko honetan ikus daiteke:




Ikus daitekeenez, umeen funtsak ere jaitsiera nabarmena izan du 2020ko maileguari dagokionez. Hain zuen, Umeen Liburutegia helduena baino denbora gehiago egon zen **itxita, 95 egun** guztira. Ez zen "normal" berriro hasi urrira arte. 2019an baino **6.964 dokumentu** gutxiago mailegatu dira. Azken urteotan umeentzako liburuen maileguen igoera izan badugu, hori Bularretik Mintzora programari, irakurketa-klubei eta ikastetxeei liburu-sortak mailegatzeari zor zaio. Aurten, eskolak eta Liburutegia ixtearen ondorioz, maileguaren jaitsiera nabarmena izan da.

2020, euskaraz eta gaztelaniaz, gehien mailegatu diren liburuak hauek izan dira:




Kaka putza
(Stephanie Blake)
Denonartean, 2015




Kopetilun
(Émile Jadoul)
Ttartalo, 2015



Leontzio eta puxika biribila
(Jo Lodge)
Ibaizabal, 2012



Doraemon 06
(Fujiko F Fujio)
Planeta Cómico, 2017



Primeras preguntas. ¿Dónde está?
(Jay Alison). Edelvives, 2009



The amazing world of Gumball 7
(Ben Bocquelet)
Norma, 2016

DVD mailegatuenak,



La vuelta al mundo de Willy Fog: la serie completa




La pantera rosa: colección completa




La oveja Shaun. Temporada 2

Azken hamar urteotako maileguak, euskarriaren arabera, hauxe izan dira:




Grafikoan ikusten da aldizkariak, diskoak eta CD-ROMak ia ez direla mailegutzen.




2020ko mailegu-portzentajeak hizkuntzaren arabera hauexek izan dira: **% 25 euskaraz, % 70 gaztelaniaz eta % 5 beste hizkuntza batzuetan**. 2019an: % 27 euskaraz, % 68 gaztelaniaz eta % 5 beste hizkuntza batzuetan.

Mailegua sexuaren arabera



Datu hau ez da aldatu pandemiarekin. Emakumeak izan dira 2020an ere mailegu-zerbitzua gehien erabili dutenak: **emakumeak, erabiltzaileen % 60 eta gizonak, % 40**.

Mailegua adinaren arabera



Maileguaren % 27 umeek egin zuten; datu hori esanguratsua da, bazkideen % **17,27** bakarrik baitira 15 urtetik beherakoak.

Instituzioei egindako mailegua

Guztira **925** izan dira instituzioei egindako maileguak, eta, haietatik erdiak herriko ikastetxeei egindakoak.

Ikastetxeekin dugun harremana sendotzeko helburua ezarri genuen 2018an, eta hainbat bilera egin genituen gure jarduerak azaltzeko eta zer zerbitzu eskaintzen ditugun adierazteko. Harrez geroztik, ikastetxe horiek gehiago erabili dute udal liburutegia.

Eskaini genuen zerbitzuetako bat liburu-sortak mailegatzea izan zen. Horri erantzunez, 2017an 316 mailegu egin zitzairen ikastetxeei, eta **2019an 1.590 mailegu**. Nahiz eta hiru hilabete baino gehiagoan ikastetxeak eta Liburutegia itxita egon, jasotzen ari garen balorazioa osa ona da, eta horrek aurrera jarraitzea bultzatzen gaitu eta ezarri dugun aliantza hau estrategiko bihurtzera.



Automailegua

Aurten automailegurako makina ez da martxan egon hainbat hilabetez, zeren itzulketa guztiek koarentena-aldi bat pasatu behar zutenez erabiltzaileen txartelak etenda geratzen ziren eta ezin zuten makina erabili.

Guztira, **615 dokumentu** mailegatu dira prozedura horretan.

Liburutegiarteko mailegua

Hauxe da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzu izarretako bat. Sareko edozein liburutegitako txartela duen erabiltzaileak Sareko funtsera jo dezake, aukeratzen duen liburutegiko erakus-mahaian eskatuta. Alegia, bere liburutegian eskuragarri ez dagoen funtza eskura dezake Sareko beste liburutegi baten bidez, eskaera bat eginda.

Datuei dagokienez, hauexek dira 2020an jaso direnak: **2.513 liburu**, **2019an baino 720 gutxiago**. Datu horietan sartzen dira irakurketa-klubek eskatutakoak, liburuez hornitzen baititugu, eta aurten askoz ere saio gutxiago egin dira.

Beste liburutegi batzuei lagatako dokumentuak: **1.099** (denak Sarearen barruan)

Eskatutako dokumentuak: **1.029** (1.027 Sarearen barruan, 2 Koldo Mitxelena Liburutegiari)

Irakurketa-klubei lagatako liburuak: **385 liburu**, **26 liburu-sorta**.

Irakurketa-klubei lagatako liburu-sorta

Maileguetan sartuta daude gure irakurketa-klubentzako liburu-sortak.

10 irakurketa-talderi lagatzen dizkiogu liburuak: Liburutegiko helduen klub biak (euskarazkoa eta gaztelaniazkoa) eta umeen bi taldeak, eta baita Eibarren dauden honako hauek: Pagatxa, Biztu, Litertxoko, San Andrés Egoitza, Egogain Zentro Gerontologikoa (URTMS) eta AGIFES. Horrek nabarmen handitzen du liburutegiarteko mailegua, batez ere, eskatutako liburuena.

Hauexek dira lagatako loteak:

Agifes (Irakurketa erraza): 6 lote = 60 mailegu

Biztu: 7 lote = 140 mailegu

Egogain (Irakurketa erraza): 3 lote = 32 mailegu

Euskarazko irakurketa-kluba: 1 lote = 20 mailegu


Gaztelaniazko irakurketa-kluba: 1 lote = 10 mailegu

Litertxoko: 5 lote = 83 mailegu

Pagatxa: 1 lote = 20 mailegu

San Andrés Egoitza (Irakurketa erraza): 2 lote = 20 mailegu

Guztira, hortaz, 385 izan dira irakurketa-klubei lagatako loteak.





eLiburutegia zerbitzua

eLiburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek eskaintzen duten zerbitzua da, eta Internet bidez eduki digitalak irakurtzeko plataforma bat da, streaming, ordenagailu edo gailu mugikorren bidez. Zinema eta ikus-entzunezkoak online ikusteko aukera ere eskaintzen du 2018tik. Zerbitzu honen hasierako orria honako hau da: www.eliburutegia.euskadi.eus.

Zerbitzu hau erabili ahal izateko, sareko edozein liburutegitako bazkide-txartela eduki behar da.

2020an, **pandemiaren ondorioz** liburutegiek gure espazio fisikoak itxi behar izan genituenean, **zerbitzu horren eskaria nabarmen handitu zen**. Izan ere, plataformaren erabilerari buruzko emaitzak ikusi besterik ez dago, aurreko urteekin alderatuta.





2020an, **226 eibartar gehiago** izan genituen **eLiburutegia** zerbitzua erabiltzen. Alta asko egin genituen Liburutegia itxita egon zen hiru hilabeteetan. Guztira, **2.505 liburu deskargatu** zituzten Eibartik, 2019an baino **ia % 99 gehiago**. Datu oso positiboa da pandemiak eragindako zifren jaitsieraren artean.

Filmak doan deskargatzeko **eFilm zerbitzuari** dagokionez, 2019an liburutegien sarean 9.620 pelikula deskargatu baziren ere, 2020an **% 292ko igoera** egon da, guztira **37.729 pelikula** deskargatu direlarik.

Gehien irakurri diren liburuak hauek dira, euskaraz eta gazteleraz:




Aitaren etxea
(Karmele Jaio)
Elkar, 2019



Miñan
(Ametz Arzallus)
Susa, 2019



Amaren eskuak
(Karmele Jaio)
Elkar, 2012



La cara norte del corazón
(Dolores Redondo)
Destino, 2019



El enigma de la habitación 622
(Joel Dicker)
Alfaguara, 2020



Loba Negra
(Juan Gómez-Jurado)
Ediciones B, 2019

KONTUAK

Diru-sarrerak

DIRU-SARRERAK GUZTIRA	23.484 €
------------------------------	-----------------

DIRULAGUNTZAK	23.484 €
----------------------	-----------------

Eusko Jaurlaritz	21.484 €
-------------------------	-----------------

Funts bibliografikoak berriztea	12.519 €
Irakurketa sustatzea	4.189 €
Teknologia berriak ezartzea eta garatzea	4.776 €

Kultura eta Kirol Ministerioa	2.000 €
--------------------------------------	----------------

"María Moliner" lehiaketa: irakurtzea sustatzeko proiektuak	2.000 €
---	---------

Gastuak

GASTUAK GUZTIRA⁵	59.003 €
------------------------------------	-----------------

2. Kapitulu	51.672 €
--------------------	-----------------

Ekipoen mantenimendua	3.715 €
------------------------------	----------------

Makinak, instalazioak eta tresnak	3.715 €
-----------------------------------	---------

Funts bibliografikoa eta ikus-entzutezkoa	29.782 €
--	-----------------

Egunkariak, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	23.730 €
---	----------

Beste hornidura batzuk	6.052 €
------------------------	---------

Publizitatea, sariak	334 €
-----------------------------	--------------

Protokoloa eta ordezkaritza	124 €
-----------------------------	-------

Argitalpenak, publizitatea eta propaganda	211 €
---	-------

Jarduera sozio-kulturalak	17.840 €
----------------------------------	-----------------

Bilerak eta hitzaldiak	960 €
------------------------	-------

Kontratu sozio-kulturalak	16.880 €
---------------------------	----------

4. Kapitulu	2.025 €
--------------------	----------------

Dirulaguntzak	2.025 €
----------------------	----------------

Irabazi asmorik gabeko instituzioei (Eibar Aldizkaria)	2.025 €
--	---------

6. Kapitulu	5.306 €
--------------------	----------------

⁵ Ez da sartu langileen gastuei buruzko 1. kapitulu

Ekipo informatikoak**5.306 €**

Informazio-prozesuetarako ekipoak.

Teknologia berriak

5.306 €

IRAKURTZEA BULTZATZEA


Bularretik Mintzora programa



Deskribapena	Programa hiru zutabetan oinarritzen da eta irakurketa sustatu nahi du 0 eta 8 urte arteko umeen artean. Zutabe horiek dira Liburutegia, Eskola eta Familia.
Hartzaileak	0 eta 8 urte arteko umeak eta gurasoak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Haur literatura bultzatzea (batez ere euskaraz) • Liburutegia kalitatezko bibliografia batez hornitzea • Haur literaturaren maileguak handitzea • Irakurketaz gozatzeko guneak eskaintzea gurasoei, hezitzaileei eta umei. • Gurasoei eta hezitzaileei ozenki irakurtzeko trebakuntza ematea. • Umeek konpainian irakurtzeko gune lasai bat izan dezaten lortzea • Familiak kontzientziatzea irakurtzeak duen garrantziaz • Liburutegia ezagutaraztea hainbat arrazoiengatik hura ezagutzen ez zuten familiei
Egutegia	Urtean zehar. Nahiz eta gurasoentzako hitzaldiak programatu, ezin izan dira egin ez zegoelako gutxieneko kopururik izena emanda.

Baliabideak	Liburutegia arduratzen da bibliografia erosteaz eta toki bat antolatzeaz Umeen Gelan, eta Euskara Sailak finantzatzen du programan sartzen diren ikastetxeetako gurasoen trebakuntza. Ikastetxeen lankidetzak garrantzitsua da, ikasleak Liburutegira baitatoz programako liburuak maileguan eramateko.
Programaren arduraduna eta laguntzaileak	Liburutegia eta Euskara Saila. Proiektuan ikastetxeek eta familiek parte hartzen dute.
Aurrekontua	0,00 €
Balorazioa eta estatistikak	<p>Bularretik Mintzora programaren ondorioz, handitu egin da erabiltzaile-kopurua.</p> <p>Egiaztatu dugunez, jende gehiago dator Liburutegira, eta Umeen Liburutegian dokumentu gehiago lagatzen dira programa hasi aurretik baino.</p> <p>593 liburu ditugu eskuragarri programarako eta 2020an 1.474 mailegu egin ziren.</p> <p>Maileguei buruzko datuak liburuena dira gehienak, izan ere, gainerako euskarriak gero eta gutxiago eskatzen dira. Aurten jaitsiera bat egon da Liburutegiaren itxiera eta eskoletako programaren etena direla-eta.</p>

Liburua, ate bat kulturarako



Deskribapena	<p>Ekimen hau zozketa batean datza: irakurleen artean sarrerak zozketatzen dira bai Eibarko Udalak bai herriko beste talde batzuek antolatutako ekitaldietarako.</p> <p>Erabiltzaileak liburu bat maileguan hartzen duen bakoitzean, paper bat jasotzen du; gero liburua itzultzean papera entregatu behar du (bere datuekin), eta ikuskizunetara doan joateko zozketan sartzen da.</p>
Helburuak	Erabiltzaileak "saritzea".
Egutegia	Urtean zehar.
Baliabideak	Liburutegiko langileak eta Kultura Sailak ikuskizunetarako ematen dituen sarrerak.
Programaren arduradun	Liburutegia
Aurrekontua	Sarreraren kostua. Kulturako aurrekontuaren kargu
Balorazioa	Bina sarrera zozketatu dira 10 ikuskizunetarako; guztira 56 sarrera banatu dira, 23 emakumeen artean eta 5 gizonen artean.

Zapatuko ipuina



Deskribapena	Urtean zehar ipuin-kontaketa saio bat egiten da hilero azken zapatuan.
Hartzaileak	3 urtetik gorako umeak.
Helburuak	Irakurtzera bultzatzea ahozko literaturaren bidez Aisialdirako aukerak ematea asteburuetarako
Egutegia	Urritik apirilera, hilero azken zapatuan. Aurten bertan behera geratu dira martxoko eta apirileko saioak.
Baliabideak	Liburutegiko langileak. Ipuin-kontalariak kontratatzea. Kartelak, eta abar.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	1.298,00 €
Balorazioa	Jarraipen bat egiten da honako hauek kontuan hartuta: saioan parte hartzen duen ume-kopurua, egun horretan zer eguraldi zegoen, saioaren kalitatea (ipuin-kontalariaren kalitatea, publikoa erakartzea lortu duen, eta abar). 152 ume egon dira antolatutako 4 saioetan. Azken bi hilabeteotan aforoa murriztu behar izan dugu eta bi saioa geratu dira bertan behera.

Azalerako ipuinak (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena	Klub honetan lortu nahi dena da familiek toki bat edukitzea irakurketa partekatuzko.
Hartzaileak	1 urteko eta Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko geletako umeak, gurasoez lagunduta. Bi talde antolatu dira.
Helburuak	Helburua da entzumena, ukimena, ikusmena, usaimena... ate bat izan daitezkeela literaturara jotzeko. Abestiak, ipuin motzak, hitz-jokoak berreskuratuko ditugu azaleko ipuinetan erabiltzeko. Halaber, liburuak eskaintzen dizkiguten hainbat baliabide ezagutuko ditugu.
Noiz	Urtariletik maiatzera eta urritik abendura.
Baliabideak	Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira, baldin eta Liburutegiak ez baditu.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Saioen dinamizatzailea Saroa Bikandi da.
Aurrekontua	2.145,00 €.
Balorazioa	Bi talde izan ditugu. 96 umek parte hartu dute saioetan.

Saioetako batzuk online izan ziren Liburutegia itxita egon zen denboran, eta bideokonferentzia-plataforma bat erabili zen.

Liburuen poltsa (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena	Klub honekin lortu nahi dena da familiek toki bat izatea irakurketa partekatzeke.
Hartzaileak	Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko geletako umeak eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. geletakoak, gurasoez lagunduta. Lau talde eratu dira.
Helburuak	Irakurketa-kluba dinamizatzea, jarduerak, jolasak eta dinamikak sustatuz motibazioa eta liburura gerturatzea bultzatzeko, desiotik, interes propioetatik eta fantasia pertsonaletatik abiatuta.
Noiz	Urtarriletik maiatzera eta urritik abendura.
Baliabideak	Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira Liburutegiak ez baditu.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Saioen dinamizatzaileria Saroa Bikandi da.

Aurrekontua	4.290,00 €.
Ebaluazioa	Lau talde izan ditugu. 161 neska-mutikok parte hartu dute egindako saioetan. Saioetako batzuk online izan ziren Liburutegia itxita egon zen denboran, eta bideokonferentzia-plataforma bat erabili zen

Paperezko hegoak (umeen irakurketa-kluba)




Deskribapena	Garbi dago literaturak eta letren munduak aberastu egiten dutela ume eta gaztetxoek garapena. “Paperezko hegoak” programan tailer bihurtu dugu irakurketa-kluba, eta saio bakoitzean, irakurri dena taldean lantzeaz gain, sormen-ariketa bat egiten dugu.
Hartzaileak	Lehen Hezkuntzako 3. kurtsoko ikasleak eta Bigarren Hezkuntzako 1. kurtsokoak.
Helburuak	Parte hartzaileek beldurra galtzen diote irakurtzen dituzten liburuak komentatzeari eta oso ondo pasatzen dute. Gainera, lortzen dugu umeak ez urruntzea erabat irakurketatik, eta aukera ematea ikastetxean programatuta dauden baino liburu gehiago irakurtzeko.
Noiz	Urtarriletik maiatzera eta urritik abendura.

Baliabideak	Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira Liburutegiak ez baditu. Parte-hartzaile bakoitzarentzat liburu bat ekartzen da liburuarteko maileguan.
Programaren arduraduna	Saioen dinamizatzaileria Txomin Magdalena da. Urritik aurrera, Naiara Rubio izan da.
Aurrekontua	Guztira, 2.380,00 € .
Ebaluazioa	Bi talde izan ditugu, eta 118 umek parte hartu dute saioetan. Saio batzuk online izan dira Liburutegiaren itxiera dela-eta.

Haur eta Gazteentzako Liburu Nazioarteko Eguna

Zu ere ipuin kontalaria



Deskribapena	Liburuaren Egunean etxean geunden konfinatuta. Hala ere, familiarentzako jardura bat egin genuen (<i>Zu ere ipuin kontalaria</i>), eta eskatu genuen umek bideo bat grabatzeko ipuin bat kontatuz.
Hartzaileak	Umeen Liburutegiko erabiltzaileak.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> Ahozko narrazioa bultzatzea Txikienak entretenitzea, etxean konfinatuta zeuden-eta.
Noiz	Apirila
Baliabideak	100,00 € liburutan gastatzeko, jasotako bideo guztien artean egindako zozketan irabazi zuen bideo-egilearentzat.

Programaren arduraduna	Umeen Liburutegiko arduraduna.
Aurrekontua	100,00 €-ko bonua liburuak erosteko.
Ebaluazioa	<p>Jaso genituen bideoak, zeinak gurasoen baimena lortu ondoren Youtubeko gure kanalean jarri ziren: https://www.youtube.com/playlist?list=PLhHdROsvhB6T3WZCZVe5eq-ESzXYxUCDF</p> <p>17 neska-mutikok parte hartu zuten eta balorazioa oso positiboa izan da, ikusten baita zer-nolako ahalegina egin duten grabazioetan. Kontalari bikainak dira!</p>

“Posta-irakurketak” lehiaketa



Deskribapena

Haurrentzako Liburu Nazioarteko Egunaren harira, Organización Española para el Libro Infantil y Juvenil (OEPLI) delako erakundeak, Kultur eta Kirol Ministerioaren babesarekin, urtero jarduera ireki bat antolatzen du, eta aurten Juan San Martín Liburutegiak parte hartu du, ikastetxeekin batera.

	<p>Parte har dezakete Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan dabilzan irakurle guztiek, eta lau kategoria ezartzen dira:</p>
Erabiltzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Txikiak (0-6 urte): kategoria honetan ilustrazioak edo marrazkiak bakarrik dituzten postalak ere onartzen dira. • Lehen irakurleak (Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3.kurtsoak) • Irakurle aurreratuak (Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6.) • Super irakurleak (Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2.).
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Liburutegia ezagutzera ematea • Haur eta gazteentzako liburu onak ezagutaraztea eta gazteen artean irakurketa bultzatzea. • Jarduerak egitea ikastetxeekin batera.
Noiz	Martxoan. Bertan behera geratu zen liburutegiak ixtean, baina berriz ere urrian jarri zen martxan.
Baliabideak	Eibarko lehiaketaren irabazleentzako opariak.
Programaren arduraduna	Umeen Liburutegiko arduraduna.
Gastua	Sariak lehiaketaren irabazleentzat (oihalezko poltsa, liburuak eta papergauzak): 73,63 €
Ebaluazioa	<p>Oso balorazio positiboa, espero baino jende gehiagok parte hartu baitu. 454 postal jaso dira lehiaketako lehen hiru kategorietan parte hartu dutenak.</p> <p>Gainera, Liburutegiak Galtzagorria aurkeztutako lanek Euskadiko lehenengo hiru sariak eskuratu dituzte lehen kategorietan. Irabazleek liburu-sorta bat ere jasoko dute.</p>

Helduentzako irakurketa-kluba gaztelaniaz



Deskribapena	Bilerak egiten dira hilero aurrez aukeratutako liburuak komentatzeko. Bilera horiek pertsona batek koordinatzen eta dinamizatzen ditu, liburuen irakurketa gidatuz.
Hartzaileak	16 urtetik gorakoak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Literaturan interesa duten pertsonen arteko harremana bultzatzea • Aukeratutako liburuen iruzkin-trukea sustatzea • Irakurleei aukera ematea beren lan pertsonala klubeko beste kide batzuen edo dinamizatzailearen iruzkin, balorazio eta abarrekin aberasteko. • Obra baten irakurketan sakontzea klubeko kideen eta dinamizatzailearen laguntzarekin, irakurtzerakoan sarri ihes egiten digun zer hori aurkitu nahian.
Egutegia	8 saio egiten dira urtean, hilean bat. Aurten horietako bi modu birtualean egin dira Liburutegia itxita egon den denboran.

Baliabideak	Parte-hartzaile bakoitzari aukeratutako liburua ekartzen zaio Liburutegiarteko Maileguaren bidez.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Dinamizatzaila: Peru Magdalena Arriaga.
Aurrekontua	1.760,00 €.
Balorazioa	Ikasturte amaieran inkesta bat egiten zaie parte-hartzaileei eta saioak dinamizatzen dituen pertsonari. Galderak ikastaroari, dinamizatzailari, azpiegiturari eta plangintzari buruzkoak dira. 97 pertsonak parte hartu dute.
Oharrak	Gure klubaz gain, beste 6 irakurketa-klubei lagatzen dizkiegu liburuak. Hain zuzen, hauexei: Pagatxa eta Biztu elkarteak, eta Litertxokok antolatzen duena. Halaber, Irakurketa errazeko 3 talderi ere ematen diegu zerbitzua: Eibarko Egogain Zentro Gerontologikoko Esku-hartze psikosozialeko taldea, San Andres Egoitzako Fundazio Publikoko taldea eta AGIFES .

Idazlearekin harixa emoten (irakurketa-kluba euskaraz)



Deskribapena

Hilero egiten dira bilerak aurrez aukeratutako liburuak komentatzeko. Bilerak **liburuaren egilea bertan dela** egiten dira; idazleak bere ibilbideari buruz hitz egiten du, liburuan erabilitako literatur-prozesuaz, parte-hartzaileen galderei erantzuten die, eta abar.

Hartzaileak

16 urtetik gorako pertsonak

Helburuak

- Euskaraz irakurtzea bultzatzea
- Literaturan interesa duten pertsonen arteko harremana sustatzea
- Aukeratutako liburuen iruzkin-trukea sustatzea

- Irakurleei aukera ematea beren lan pertsonala klubeko beste kide batzuen edo dinamizatzailearen iruzkin, balorazio eta abarrekin aberasteko
- Obra baten irakurketan sakontzea

Egutegia	8 saio egiten dira urtean zehar, hilean bat, urritik maiatzera bitartean. Aurten bi saio bertan behera laga behar izan ditugu.
Baliabideak eta lankidetzak	Parte-hartzaileei saio bakoitzean aukeratutako liburua ekartzen zaie Liburutegiarteko Maileguaren bidez. ...eta kitto! Euskara Elkarteak lankidetzan dihardu Liburutegiarekin jarduera honetan. Euskara bultzatzeko Udalak duen Plan Estrategikoaren barruan kokatzen da jarduera. Euskal Idazleen Elkarteak lagundu egiten du, idazleekin harremanetan jarriz eta saioaren zati bat diruz lagunduz.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Dinamizatzailea: Antxon Narbaiza, zeinak parte-hartzaileei banatzen zaien irakurketen iruzkina idazten duen.
Aurrekontua	960,00 €.
Ebaluazioa	73 pertsonak parte hartu dute egin diren saioetan.

Irakurketa errazeko klubak




Gure irakurketa-klubez gain, irakurketa errazeko 3 klubi lagatzen dizkiegu liburuak. Zehazki, hauexei: Eibarko **Egogain** Zentro Gerontologikoko Esku-hartze psikosozialeko taldea, **San Andres Egoitzako** Fundazio Publikoko taldea eta **AGIFES**.

Gainera, toki berezi bat dugu Liburutegian, non irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsoneri irakurketa errazeko liburuak eskaintzen dizkiegun.

Talde horietako batek **70 saio presentzial** egin ditu Liburutegian.

112 liburuko 11 lote laga ditugu.

Liburuaren Nazioarteko Eguna



Deskribapena

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko etxetik egiteko moduko jarduera bat antolatu genuen, eta hala erabiltzaileak gonbidatu genituen grabazio bat egitera liburu bat gomendatuz: *“Grabatu zure burua irakurtzen” - “Grábate leyendo”*

Erabiltzaileak	Publiko orokorra
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Liburuaren Eguna ospatzea eta helduentzako ezohiko jarduerak eskaintzea • Irakurtzea sustatzea • Irakurketak gomendatzeko teknologiak erabiltzea sustatzea
Noiz	Apirila
Baliabideak	100,00 € liburutik jasotako bideo guztien artean egingo den zozketan saritzen den bideo-egilearentzat.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	100,00 €-ko bonua liburuak erosteko

Ebaluazioa

Parte-hartzaileek liburuaren azala erakutsi behar zuten bideoan, edo, liburu digitalen kasuan, titulua eta egilea aipatu. Bideoak laburrak izan behar ziren, 45-60 segundo ingurukoak, eta sare sozialetan jarri behar ziren Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, honako hashtag hau erabiliz: **#LiburuarenEgunaEibarren #DíaDelLibroenEibar**.

11 bideo jaso ziren, Liburutegiko langileek berek eta herriko alkateak eredu moduan igo zituztenez gain.

Geunden egoera eta zailtasunak kontuan hartuta, balorazioa positiboa da.

Hitzaldiak eta liburu-aurkezpenak



Deskribapenak

Gai jakin bati buruzko hitzaldiak edo liburu-aurkezpenak.

Urtarrila. Idoia Carramiñanaren “Bi” poema-liburuaren aurkezpena. Haikuei buruzko mintzaldi bat zegoen aurreikusita, baina udazkenean egin beharko da.

Abendua. “Hoy es mañana. Diez relatos para repensar el futuro” liburuaren aurkezpena. Julen Bollain Urbieta.

Erabiltzaileak

Publiko orokorra

Helburuak

Idazleak irakurleengana hurbiltzea

	Kultur zabalkundea
Egutegia	Urtean zehar
Baliabideak	Kartelak. Itzamna poesia-tailerreko kide batzuk egon ziren poemetako batzuk errezipititzen.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	0,00 €.
Balorazioa	Horrelako jardueretara ez da jende asko joaten, ez badauka loturarik herriarekin edo bertako idazleak ez badira. Aurten bi aurkezpen egin dira eta 27 pertsonak parte hartu dute.

Ikastetxeetarako erakusketa didaktikoak

Itsaspeko bihotzak literatur aretoa





Deskribapena	Literatur gune honetan genero-berdintasuna lantzen da euskarazko haur literaturaren bidez. Horretarako, Galtzagorri elkarteak ibilbide artistiko-pedagogiko bat diseinatu du hezkidetza ardatz duena.
Erabiltzaileak	Batez ere pentsatuta dago Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoko ikasleek bisita gidatuak egin ditzaten. Beraz, bisita horiek ikastetxeekin adostuko dira. Erakusketa Aretoaren ohiko ordutegian egongo da zabalik, bai pertsona helduek bai familiek ikus ditzaten erakutsitako liburuak eta arte-lanak, eta gaiari buruz hausnar dezaten.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Literatura kohezitzailea ezagutzera ematea bai neska-mutikoei bai helduei. • Artean eta estetikari hezitzea begirada artistikoa landuz. • Praktika pedagogiko kohezitzaile bat aurrera eramatea. • Imaginario kolektiboan dauden sexu- eta genero-estereotipoak gainditzeko aukera ematea.
Egutegia	Bertan behera laga behar izan genituen martxoaren 13 eta 16rako aurreikusitako saioak Liburutegia itxi zelako.
Baliabideak	Liburutegiko funtzio anitzeko gela erabili genuen.
Programaren arduraduna	Liburutegia, Galtzagorri Elkartearen bidez. Udaleko Berdintasun Sailaren lankidetzarekin.
Aurrekontua	2.610,00 €.
Balorazioa	Parte hartu zuten ikastetxeek balorazio positiboa egin dute. Erakusketan 188 neska-mutikok parte hartu dute, 8 ikastetxetako 9 taldetan banatuta. Familien saiora 20 pertsona joan ziren. 4 saio bertan behera laga behar

izan genituen, Liburutegia itxi zela-eta; egin izan balira, 98 ume gehiago izango genituen.

Tantaka, tabuak ipuinetatik lantzen



Egiten ari den sentsibilizazio-programa Udalak onartutako [Haurren, Nerabeen eta Familien I. Plana](#) (2018-21) dokumentuaren ekintzen barruan sartzen da.

Orain arte bi sentsibilizazio-saio egin dira, bata Udal barruan eta bestea kirol taldeei eta aisialdiko taldeei zuzenduta, zeinean 50 pertsonak parte hartu duten.

Deskribapena

Bullying-ari dagokionez, ezinbestekoa da ikastetxeen inplikazioa; hortaz, ikasleentzako ekintza batzuk planteatu dira eta horretarako ikastetxeen lankidetzara eskatu da.

Planteatu da lehiaketa bat antolatzea Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat, logo eta lelo bat lantzeko bullying-aren aurka; Lehen

Hezkuntzako ikasleentzat, erakusketa bat egingo da Portalean, Udal Liburutegiarekin batera, hala jarraipena emateko iazko ikasturtean hasitako programari: "Tantaka, tabuak ipuinetatik landuz".

Era berean eta Gurasoak Martxan programaren barruan bi hitzaldi aurreikusi dira gurasoei zuzenduak ziberbullying-ari buruz, bata otsailaren 19an eta bestea martxoaren 4an

Programa Eibarko Berritzegunearen lankidetzarekin egin da; erakunde horrek BAT (Bullying-aren Aurkako Taldea) elkarteekin lan egiten du. Talde horiek funtsezkoak dira jazarriak izan diren pertsonekin, jazarpena egin dutenekin, jazarpena ikusi dutenekin eta jazartzailearen eta haren familiarekin lan egiteko.

Programaren parte-hartzaileak:

Juan San Martin Udal Liburutegia eta Eibarko Udaleko Gizartekintza Saileko Haur, Nerabe eta Familien Arloa eta herriko Lehen Hezkuntzako ikastetxeak.

Deskribapena:

Ipuin bat erabiltzen da, bere kalitate literarioagatik tresna gisa balio duena helduoi zaila egiten zaigun edo sozialki tabuzat jotzen den gai ba lantzeko. Ipuinetik abiatuta, erakusketa bat egiten da hainbat jarduera biltzen dituen.

Aukeratutako liburua:

"Juul", Gregie de Maeyer-ek idatzia, Koen Vanmechelen-en ilustrazioekin (eskulturak).

Lantzen diren arazoak:

Irainak, tratu txarrak, umiliazioak, hitz batean, bullying-a.

Hartzaileak	Herriko Lehen Hezkuntzako ikasleak. Proiektuan interesa duten geletako tutoreekin adostutako bisita gidatuak.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Erakusketa bat egitea ipuin batean oinarritua eta gida didaktiko bat egitea. • Erakusketaren oinarri den ipuina ezagutzera ematea eta irakurketa sustatzea ipuinean lantzen diren alderdiak aztertuz, kasu honetan, irainak, tratu txarrak eta umiliazioak. • Erakusketa didaktiko bat eskaintzea Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. kurtsoetako ikasleei, ipuina lantzeko metodologia eskainiz. • Jarduera osatzea gai bera jorratzen duten beste irakurketa batzuk eskainiz.
Egutegia	Urriaren 1etik 22ra
Baliabideak	Liburutegiko balio anitzeko gela erabiltzen dugu. Honako baliabide hauek kontratatzen ditugu:

- Erakusketa Gijongo Udaleko Kultur, Hezkuntza eta Herri Unibertsitateko Fundazioari.
- Erakusketa ekartzeko garraioa.
- Pertsona bat erakusketa jartzeko eta kentzeko, bai eta ikasleen bisitak dinamizatzeko ere.


Programaren arduraduna	Liburutegia. Eibarko Udaleko Gizartekintza Saileko Haurren, Nerabeen eta Familien Arloaren lankidetzarekin.
Aurrekontua	2.636,37 €
Balorazioa	Apirilerako eta maiatzerako zegoen aurreikusita, baina udazkenerako laga behar izan da. Bisitetan 32 eskola-taldek parte hartu dute eta 584 neska-mutikok .

Meetings at the Library – Réunions dans la Bibliothèque




Deskribapena	Jarduera honetan bilerak egiten dira hizkuntzak lantzeko. Liburutegia erabiltzen da hizkuntza praktikatzeko topaleku gisa, gaurkotasuneko edozein gairi buruz hitz egiteko aitzakiarekin.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Liburutegia erabiltzea hizkuntzak modu ez formalean ikasteko. • Hizkuntzak ikasteko material egokia erostea proposatzea • Hizkuntzak ikasteko Liburutegiak duen funtsa erabiltzea • Liburutegiko erabiltzaileen esperientziaz eta ezagutzaz baliatzea • Harreman sozialak sustatzea: Liburutegia sozializazio gune bihurtzea • Gure erabiltzaileen artean interesa pizten duten jakintza-esparruei bide ematea • Liburutegia, hizkuntzen mintza-praktikaren bidez, lan-profila hobetzeko toki gisa erabiltzea • Jarduera planteatzea ikaskuntza formalaren osagarri gisa eta ez haren ordezko
Noiz	Urtarriletik ekainera eta urritik abendura.
Baliabideak	Herriko hizkuntza-akademietako irakasleak kontratatu dira.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	2.561,50 €
Ebaluazioa	<p>Parte hartu dutenen balorazioa oso positiboa da, atzerriko hizkuntza bat doan lantzeko aukera ematen baitzaie.</p> <p>Martxo erdialdetik ekainera bitarteko saioak bertan behera laga behar izan ditugu Liburutegiaren itxiera dela-eta.</p> <p>40 saio egin dira, eta guztira 327 pertsonak parte hartu dute.</p>

Liburutegien eguna



Deskribapena	Liburutegien Eguna ospatzeko bi ekitaldi aurreikusi ditugu: itzal-titereen tailer bat eta poesia-emanaldia bat.
Hartzaileak	Titere-tailerra: haurrak Poesia-emanaldia helduentzat
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> • Liburutegien Eguna ezohiko ekitaldiekin ospatzea • Irakurketa sustatzea • Liburutegia ezagutaraztea
Noiz	Urria
Baliabideak	Titere-tailerra kontratatzea Poesia-emanaldia kontratatzea
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	775,21 €
Ebaluazioa	Poesia-emanaldian, aforo-kontrolarekin, 34 pertsona egon ziren. Itzal-titereen bi tailerretan 13 neska-mutikok parte hartu zuten; aforo-kontrola egon zen baita ere.

Liburutegiko tailerrak: erabiltzaileak trebatzen (ALFIN)



Liburutegiko tailerra Eibarko Haur Hezkuntzako eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei zuzenduta dago. Nahi duten ikastetxeek har dezakate parte.

Tailerrak adin-taldeetara daude egokituta.

Haur Hezkuntza

- **LIBURUTEGIAN KONTU-KONTARI:** Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako ikasleei zuzendutako saioak; ikasleak estreinakoz gerturatzeko dira Liburutegira.

Lehen Hezkuntza

- **IRAKURTZEN BADAKIT:** Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasleei zuzendutako saioak.
- **EGUN BAT LIBURUZAIN:** Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleei zuzendutako saioak

Deskribapena eta hartzailak


- **LIBURU ARTEAN:** Lehen Hezkuntzako **3. zikloko** ikasleei zuzendutako saioak

Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

- **INFORMAZIOA HELBURU:** Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetako ikasleei zuzendua.

Helburuak	<p>Liburutegiko kontzeptura hurbiltzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Liburutegian izan beharreko jokabideak eta bertako funtzionamendu-arauak. • Liburutegia bera deskubritzea. • Eskaintzen dituen zerbitzuak eta haiek erabiltzeko modua ezagutzea. • Liburu eta gainerako materialen sailkapen-sistema ezagutzea eta errotulu eta seinalizazio bidez bertan orientatzen ikastea. • Katalogoa erabiltzen ikastea. • Informazio-iturriak ezagutzea. • Bilaketa-prozesurako trebatzea (ALFIN).
Noiz	Ikasturtean zehar, bereziki, urrian eta azaroan
Baliabideak	<p>Ordenagailuak (OPAC), eta jokoan erabilitako materiala: fitxak eta abar. Jardueretan metodologia parte-hartzailea, ludikoa eta kooperatiboa erabiltzen da, bai eta bitarteko eta tresna digitalak ere.</p> <p>Trebakuntza-blokeak ikasleen adina kontuan hartuta ezartzean, bilatzen duguna da saioetan eskuratutako ezagutza pilatzen joatea.</p>
Programaren arduraduna	Tailerrak Liburutegiko langileek egiten dituzte. Liburutegiak email bat bidaltzen die ikastetxeari jakinarazteko noiz egingo diren jarduerak; egutegia haiekin adosten da.
Aurrekontua	0,00 €
Balorazioa	<p>Herriko ikastetxeetako irakasleek ondo baloratzen dute jarduera. Dauden 7 ikastetxeetatik, normalean denek parte hartzen dute.</p> <p>Aurten aforoei dagokienez, Covid-10aren segurtasun-araudiaren zailtasuna izan dugu. Egokitu egin behar izan ditugu tailerrak, ikasleak Liburutegian zeuden artean mugikortasun larregi egon ez zedin.</p> <p>9 saio egin ditugu eta 156 pertsonak parte hartu dute.</p>

Erakusketak interes guneetan



Deskribapena	Urtean zehar gure funts bibliografikoaren erakusketak antolatzen ditugu, horretarako Portaleko kultura etxean antolatutako jarduerak, efemerideak edo beste ekitaldi batzuk aitzakia hartuta.
Hartzaileak	Publiko orokorra
Helburuak	Liburutegiko funtsaren zabalkundea egitea Berriak ez diren materialei irteera ematea Euskarazko liburuen irakurketa bultzatzea
Egutegia	Urtean zehar
Baliabideak	Kartelak, erakus-mahaiak eta Liburutegiko funtsa. Batzuetan, gidak egiten ditugu paperean zein formatu digitalean, eta horien zabalkundea egiten dugu gure webgunearen bidez: https://www.eibar.eus/es/cultura/biblioteca/publicaciones/guias-de-lectura
Programaren arduraduna	Liburutegiko langileak
Aurrekontua	0,00 €
Balorazioa	Aurten 4 erakusketa azpimarratu behar ditugu: ALFAren urteurrena, martxoaren 8a, Ignacio Zuloaga eta arazoaren 25a. Aipatu behar da interes guneetan jartzen den materiala, gero maileguan eramaten dela.


TREBAKUNTZA

Prestakuntza ekintza	Modalitatea	Langile kopurua	Ordu kopurua	Prestatzailea	Tokia
<i>“Diseñar en colaboración para construir comunidad”</i>	Aurrez aurre	Liburutegiko arduraduna (1)	4 h. 30’ Otsaila	ALDEE (Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarte)	Vitoria-Gasteiz
<i>“Informazioa eta Dokumentazio Kudeatzaileen VI. Bilkura. Tokiko Bildumak. GLAM erakundeek eta komunitateek tokiko memoria elkarrekin eraikitzen.”</i>	Aurrez aurre	Liburutegiko arduraduna (1)	5 h. Uztaila	ALDEE eta UEU	Eibar
<i>“Marketing y redes sociales en bibliotecas y archivos”</i>	Aurrez aurre	Liburutegiko arduraduna (1)	13 h. 15’ Iraila	ALDEE	Bilbao
<i>“Garapen profesionalerako konpetentzia digitala”</i>	Online	Liburutegiko arduraduna (1) Liburutegi laguntzaile bat (1)	30 h. Urria-Abendua	ALDEE	Online
<i>Gatazken konponbiderako gakoak</i>	Aurrez aurre	Liburutegi laguntzaileak (3)	20 h.	ENBOR KONTSULTOREAK	Eibar

			Otsaila - Martxo - Uztaila		
<i>"Bulegoetan segurtasuna eta Osasuna"</i>	Online	Liburutegi laguntzaileak (2)	4 h. Bi edizio: Uztaila eta Azaroa	QUIRONPREVENCION	Online
<i>"Intranet"</i>	Aurrez aurre	Liburutegiko arduraduna (1)	1 h. 30' Otsaila	Barne formazioa: Udaleko Komunikazio zerbitzua Informatikarekin elkarlanean	Eibar

NABARMENTZEKOAK

Armeria Eskolak emandako funtsa



Uztailean Armeria Eskolak dohaintzan emandako funtsa katalogatzen hasi ginen (aurretik lehen inbentario bat egina zegoen).

2020an **780 liburu** prozesatu dira funts horretatik, eta kontsultagai daude Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko katalogoan.

Eibarko bilduma



2020an Eibarko Bildumako 150 bat dokumentu katalogatu dira. Gehienak erregistro analitikoak dira, hau da, Eibar aztergai duten aldizkarietako artikuluak edo liburu-atalak. Erregistro horiek Sarearen katalogoan ere kontsultatu daitezke.

Gainera, Udal Liburutegiak **bi liburu berezi** eskuratu ditu abenduan. Bi bitxikeria interesgarri Liburutegiaren ondare bibliografikoa eta herriko bilduma osatzeko. Lanen egilea, **Juan Antonio Mogel** da, apaiz eta idazle euskalduna, Eibarren jaioa 1745ean. Lehen liburua, "**Confesio eta comunioco sacramentuen gañean eracasteac**", Iruñean argitaratu zen 1800ean eta Mogelen lehen lana izan zen inprimatu zena. Liburua hamazortzi ataletan dago banatuta, eta bertan, elkarrizketa bidez, aitortza eta jaun-hartze on bat izateko baldintzei buruz hitz egiten da.

Mogeli asko kosta zitzaion lan hau argitaratzeko baimena lortzea, batez ere Nafarroako Errege Kontseiluaren eragozpenengatik. Madrilera jo eta Carlos IV.a erregearen ministro zen Mariano Luis de Urquijok erregearen agindu bat lortu zion Nafarroako Kontseiluak trabarik jar ez zezan liburuak euskaraz argitaratzeko, "*Si no contradice, al menos, la doctrina de nuestra santa religión. ¡Qué triunfo para nuestra perseguida lengua!*".

Bigarren liburua, "*Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos*" Tolosan inprimatu zen 1802an. Curcio, Salustio, Tito Livio, Tácito eta Cicerónen hitzaldi hautatuak jasotzen ditu, latinetik Gipuzkoako euskalkira itzuliak.

Atarikoan W. von Humboldtekin zuen harremana aipatzen du Mogelek, eta Elena Torregeraik eta Iñaki Villosladak idatzitako [artikulu](#) batek azaltzen du zein den liburu horren berezitasuna: *Versiones Bascongadas* J.A. Mogelen lana mugarri bat da euskal literaturan, *exemplaren* lehen bilduma bat baita euskarara itzuli zena. XIX. mende hasierako Euskal Herrian, tradizio klasikoa transmititzeko modu hori Europan euskal hizkuntzarekiko sortu zen interesaren isla da, eta Humboldt da interes hori pertsonifikatzen duen figura nagusia. Ondorioz, Mogelen lanak euskara gizartean aurkezteko beharrari erantzuten dio, garai hartako kultur europarraren ezagutza-ereduen arabera. Eredu haietan oinarrituz, uste zuten gure hizkuntzak hizkuntza klasikoen perfekzio-paradigma izan behar zuela helburu, eta bere gaitasuna erakutsi behar zuela tresna kultural bihurtzeko.

Eleibar

Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Dokumentazioaren, Liburutegien eta Artxiboen Kudeaketa Masterraren amaierako lanetik abiatuta, Eibarko Liburutegian praktika-hitzarmen baten bidez egiten ari dena, prospekzio-lan bat eta kasu-azterketa bat egingo dira gure liburutegiko baliabideak erabiliz haur inmigranteei laguntzeko.

2021ean zehar, proiektu pilotu bat jarriko da martxan gizarte-bazterketa egoeran dauden haur inmigranteentzako, eskolako lanak egitean dituzten zalantza eta zailtasunetan laguntzeko.

Pandemiarekin agerian geratu da lehendik zetorren arazo bat: zenbait kolektibok pairatzen duten arrakala digital eta linguistikoa, zeinak zuzenean eragiten baitu haien heziketan.

Lehenik, sare bat sortu nahi da boluntarioz osatua euskaraz ondo moldatzen ez diren haur eta gazte inmigranteei etxeko lanak egiten laguntzeko.

Bigarrenik, seme-alabei laguntzeaz bat, gurasoak ere hezi nahi dira teknologia berrien erabileran, izan ere, pandemiaren ondorioz teknologia horiek azkar ezarri baitira ikastetxeetan.

“Liburutegiak pandemiaren aurrean” Jardunaldian parte hartzea



Koldo Mitxelena Kulturuneak, Donostia Kulturak eta Tabakalerak jardunaldi batzuk antolatzen dituzte urtero Liburutegien Egunaren inguruan liburutegien arloan gaurkotasuna duten gaiei buruz. laz, nola ez, hausnargai izan zen nola jokatu zuten liburutegiek pandemiaren aurrean, alegia, liburutegien itxiera, konfinamendu eta geroagoko irekieraren aurrean.

Gure liburutegia gonbidatu zuten urriaren 22an Medialab-Tabakleran egin zen mahai-ingurura. Bertan azaldu genuen nola erantzun genion larrialdi-egoerari, eta nola joan garen poliki-poliki gure zerbitzuak berreskuratzen, osasun-segurtasunaren araudia betez.